

LIVRET PÉDAGOGIQUE

TEACHING GUIDE • DOSIER PEDAGÓGICO
LIBURUXKA PEDAGOGIKOA

FOSSILE
harriague • schubert



IKUSKIZUNA
DESKUBRITU
AURRETIK



ZENTRO KOREOGRAFIKO NAZIONAL MALANDAIN BALLET BIARRITZ

Hemendik gutxira deskubrituko duzun lanaren egilea Martin Harriague da, Zentro Koreografiko Nazionala (ZKN) den Malandain Ballet Biarritzen Artista elkartua.

Zentro Koreografiko Nazional baten izaera eta helburuak

Zer da Zentro Koreografiko Nazional bat?

19 zentro koreografiko nazional (ZKN) daude Frantzian. Interes orokorreko beren kultura-helburuak Estatuak zehaztu ditu. Eta, horrenbestez, ZKN guztiek finantzazio publikoa jasotzen dute beren helburuak bete ahal izateko. Akitania Berriko ZKN Pirinio Atlantikoetan, Malandain Ballet Biarritzek (hori da bere izen osoa) ondokoen diru-laguntza jasotzen du: Biarritzeko hiria, Kultura eta Komunikazioaren Ministerioa /DRAC Akitania Berria, Akitania Berriko Eskualde Kontseilua eta Pirinio Atlantikoetako Departamentu Kontseilua. Thierry Malandain koreografoak zuzentzen du 1998. urtean sortu zenetik eta Biarritzeko Gare du Midi antzokian du egoitza.

Zeintzuk dira bere helburuak?

1. Lan koreografikoak sortzea:

ZKN Malandain Ballet Biarritzen kasuan, Thierry Malandain koreografoak sortzen ditu lan koreografikoak (normalean ballet izena jasotzen dute). XVI. mendean sortua, ekintza dantzarien keinuak, mugimenduak eta portaerak soilik erabiliz irudikatzen duen antzerki-genero bat da balleta. Libreto izenez ezagutzen dugun narrazio-gai batean oinarritua –edo ez–, balletak dantza, musika, jantziak eta dekoratuak uztartzen ditu. Malandain Ballet Biarritzen kasuan, balleten interpreteak dantzari profesionalak

dira. Guztiek ere, dantza klasikoko (dantza akademikoa izenez ere ezaguna) prestakuntza jaso dute. Thierry Malandain koreografoa “neoklasikoa” dela esan ohi da askotan, bere koreografia-idazkeraren oinarria dantza klasikoa delako. Aipatua, bere inspirazioaren eta nahi artistikoen arabera egokituko duen hizkuntza bizi bat da Malandaintzat.

2. Lanak hedatzea:

Lana sortu ostean, ikusleen aurrean antzeztu beharra dago. ZKNk tokiko, eskualde, nazio mailan eta nazioartean aurkeztu ditu Thierry Malandainen lanak. Malandain Ballet Biarritzek ehun ikuskizun inguru eskaintzen ditu urtero, horien herena atzerrian: Europa, AEB, Latinoamerika, Errusia, etab.

3. Ikusleak dantzarekiko sentsibilizatzea:

ZKNren beste helburuetako bat da dantza eta arte koreografikoa ikusleengana gerturatzea. Horretarako, sentsibilizazio eta heziketa artistiko eta kulturaleko ekintza ezberdinak garatzen ditu: ikuskizunak, bisitaldiak antzokira eta bere atzealdera, entsegu eta irakasgai irekiak, tailer praktikoak, erakusketak, etab.

4. Babesa eskaintzea beste dantza konpainia batzuei (Harrera Estudioa):

“Harrera Estudioa” ekimenaren baitan, ZKNk bere babesa eskaintzen die dantza konpainia eta koreografo independente ezberdinei: Gare du Midi estudioak uztea, koprodukzioak, laguntza teknikoa, ikuspegi artistikoa edo eragile profesionalekin harremanetan jartzea.

Thierry Malandain

Thierry Malandain ZKN Malandain Ballet Biarritzeko zuzendari koreografoa da 1998. urtean sortua izan zenetik. Parisko Opera Nazional, Rhingo Opera Nazionaleko Ballet eta Nancyko Antzokiko Balletean dantzatu ostean bere konpainia propioa sortu zuen 1986an. Ezkerotik, 80 koreografiatik gora sortu ditu. Egun, munduko koreografo ospetsuenetako bat dugu Thierry Malandain. Bere estiloa “neoklasikotzat” jo da: erroak ballet klasikoan ditu baina, aldi berean, interpretazio garaikide eta pertsonala eskaintzen du.

“Konplexurik gabeko ballet klasikoarena da nire kultura eta hori da nik garatzen dudana. Bere kode artistiko eta sozialak beste garai batekoa direla onartzen badut ere, nire ustez lau mendeko historiarengandik jaso dugun material guzti horrek baliabide paregabeak eskaintzen dizkio dantzariari. Dibertitzea, maite dudan dantza lortzea da nire nahia, klasikoa izango dena zenbaitentzat, garaikidea bestentzat. Plazeraren arrastoa uzteaz gain, jainkotasunarekin adiskidetu nahi duen dantza, izatearen zailtasunei erantzuteko”.

Thierry Malandain

Artista koreografikoak

Malandain Ballet Biarritzek 22 artista koreografiko ditu: 11 emakumezko dantzari eta 11 gizonezko dantzari. Guztiek ere, prestakuntza klasikoa dute.

Thierry Malandain eta Malandain Ballet Biarritz deskubrituz



Bisita birtuala Malandain Ballet Biarritzera



[Malandain Ballet Biarritzen webgunea](#)



[Malandain Ballet Biarritzen Youtube kanala](#)



LEHEN HARREMANA

koreografia eta eszenografia
musika
laguntzaile
argiak eta jantziak
dekoratua eraikitzea

Martin Harriague
Franz Schubert
Françoise Dubuc
Martin Harriague
Loïc Durant et Frédéric Vadé

Pauline Bonnat eta Julen Rodriguez Flores
Dantzaz

Frédéric Bears
Mikel Perez, Frédéric Eujol

Dosier honen azalean dagoen irudia eta zure lehen inpresioak deskriba itzazu

[illegible]

MARTIN HARRIAGUE

FOSILEN KOREOGRAFOA



Bere ibilbidea, data ezberdinetan laburbildua

1986 Baionan jaio da

2005 Debuta egin du Baionan, dantzari klasiko eta garaikide gisara, Jean-Marc eta Michèle Marquerolen eskutik.

2007-2008 Thierry Malandainek zuzentzen duen Ballet Biarritz Juniorren sartu da.

2008-2010 Dantzari Marseillako Ballet Nazionalean, Frédéric Flamanden zuzendaritzapean. Bere debuta egiten du koreografo gisara ere, Neko-San Showcase lanarekin. Ikuskizunaren lehen zatian aurkeztu zen, Frédéric Flamanden *La vérité 25x/sec* lanaren aurretik, 2009ko Dantza eta Arte Anitzen Marseillako Jaialdian.

2010-2013 Noord Nederlandse Dans (Herbehereak) dantza konpainian sartu da, Stephen Shropshiren zuzendaritzapean.

2011n, *Of Suits Spots & Fur* bere lana konpainiaren errepertorioan sartu da lehen aldiz.

2013-2018 Rami Be'errek zuzentzen duen Kibbutz Contemporary Dance Company (Israel) konpainian sartu da.

2014 2. Koreografia Saria – Stuttgarteko (Alemania) Nazioarteko Koreografia Lehiaketa, *Open Mic. Suffocation* lanaren eskutik.

2015 Scapino Ballet Rotterdamen saria Hannoverreko (Alemania) lehiaketan, *Ederra eta Piztia* lanari esker.

Ikusleen saria eta 3. Koreografia Saria – Kopenhageko (Danimarka) Lehiaketa, *Ederra eta Piztia* lanaren eskutik.

Ikusleen saria eta 2. Koreografia Saria – Stuttgarteko (Alemania) Lehiaketa, *You Man* lanari esker.

2016 Ikusleen saria, Kritikarien saria eta 2. Saria – Koreografo Neoklasiko Gazteentzako Biarritzeko Lehiaketa, *Prince* lanaren eskutik.

2018 Artista elkartua izendatu dute ZKN Malandain Ballet Biarritzen.

2019 2019ko Golden Mask Award sarietarako hautagai *Pitch* lanari esker (ekoizpen garaikiderik onena, jantzirik onenak).

Bere estiloa

Dantzari gisara izan dituen esperientzia ugariak aberastua, Martin Harriagueren hizkuntza koreografikoa plurala da. Honela, osagai klasikoak, neoklasikoak eta garaikideak antzeman daitezke. Martin Harriaguek bere lanen musika edo soinu-banda ere sortzen du normalean eta, zenbaitetan, hitzaren arte, umore edo ironiaz baliatzen da bere mezua indartzeko.

Gustukoen dituen gaiak eta konpromisoak

Munduaren bilakaeraz kezkatua dagoen gizakia, Martin Harriagueren lanak bere zalantzen, kezken eta, baita ere, haserrearen isla dira.

Klima-aldaketa eta ekosistemen narriadura gizakion eskutik:

2018an Malandain Ballet Biarritzeko 22 dantzariarentzat sortu zuen *Itsaslaminak* balletean landu du gehienbat gai hau. Balletak plastiko eta petrolioz beteriko itsaso batean azkenetan dauden sirena batzuk taularatu zituen.

Koreografoaren hitzetan, *Fosil* lana *Itsaslaminak* aurreko lanaren jarraipena da.



Gizarte, etnia, erlijioagatiko segregazioak...:

Koreografoak, normalean, oso politikoa den diskurtso bat erabiltzen du bere lanetan. Adibidez, 2020ean 10 dantzariarentzat idatzi zuen *Walls* ("Hormak" ingelesez) izeneko lanean gizakiak bereiztea xede duten hormak eraikitzeke zenbait agintari politikok duten gogoia salatzen du Harriaguek. Eta Estatu Batuetako presidente ohi Donald Trump eta bere herrialdearen eta Mexikoren arteko mugan horma bat eraikitzeke bere proiektua parodiatu zituen. 2019. urtean dagoeneko Trump eta bere politikak *Amerika* izeneko lanean salatu zituen (Alemaniako Leipzigeke Balletarentzat sorturiko lana).

Martin Harriagueren unibertsoa deskubrituz

▶ [Itsaslaminak balletaren bideo zatia](#)

▶ [Itsaslaminak balletaren sorrerari eta koreografoaren konpromiso ekologikoari buruzko dokumentala](#)

▶ [Walls lanaren bideo zatia](#)



FOSSILE
IKUSKIZUNA
ETA GERO

ZURE IMPRESIOAK DESKRIBA

Hitz batean

.....

.....

.....

Kolore batean

.....

.....

.....

Emozio batean

.....

.....

.....

Gai batean

.....

.....

.....

Soinu batean

.....

.....

.....





HIZTEGI

XUMEA

Binako pauso

Arte koreografikoan, binako pauso da bi dantzarentzako sorturiko lan koreografiko bat. Sinonimoa: Duo.

Lan abstraktu

Lan abstraktu baten xedea ez da istorio bat era errealista batean azaltzea. Gehienbat, ikurrak eta irudiak erabiltzen ditu ikusleen sentsibilitatean eragin eta bere intentzioak adierazteko.

Lan engaiatu

Lan engaiatu bat arteaz baliatzen da salaketak eta kritikak egin eta ikusleen kontzientziak arazo zehatz bati dagokionez suspertzeko.



« Fosil » definizioa

“Fosil” hitzak fossilis Latineko hitza du jatorri. Latineko hitzaren esanahia ondokoa da: lurretik hondeatuta.

Fosil bat: harkaitzean harri bihurtutako gizaki bizidun baten arrastoa edo aztarna.

Energia fosil: orain dela ehunka milioi urte (650 miloi urte izan daitezke ere) hildako espezie organikoen fosilizazioaren ondorioz sorturiko harkaitzak ditu iturri. Gizakiak harkaitz horien gehiena kontsumitu du azken 100 urteotan. Adibideak: ikatza, gas naturala edo petrolio ere.

LANA

ULERTZEKO GAKOAK

Kutxa beltzaren ikurra

"Dantza, oso fisikoa dena, tamaina handiko objektu beltz baten inguruan artikulatzen da. Dekoratuak duen osagai bakarra da. Pandoraren kutxaren edo ate espazio-tenporaltzat joak izan diren monolito beltz misteriosu horien antzera, naturaren beste ulermen baterantz irekitzen da." Martin Harriague

Monolitoak

Monolito bat osagai bakar batez osaturiko bloke bat da (esaterako, menhir bat, obelisko bat, etab.).

Antzinako monolitoak lurretik ateratzen diren harriak dira, borondate baten adierazpena, lurra eta zerua batu nahian femeninoarekin aliatu egiten den printzipio maskulinoaren borondatea hain zuzen ere. Energia kosmiko eta telurikoen edo gizakion intentzioen hartzaileak dira. Gizakia kontzientziara eramaten duen bertikaltasunaren printzipioa ere irudikatzen dute monolitoek. Beltza eta angeluzuzena bada ate espazio-tenporal bat da, bilakaeraren ikur.



Pandoraren kutxaren mitoa

Greziar mitologian, Pandora ("jainko guztien dohain" esan nahi du) inoiz bizi izan zen lehen emakumea da. Olinpoko jainkoek sortu zuten, gizonak limurtu eta galbidera eraman zitzaizkion. Pandora kutxa batekin batera etorri zen lurrera. Egiazki, gizakiok pairatuko dituzten gaitz guztiak barruan dituen murko bat da; ondoko gaitzak hain zuzen ere: Zahartzaroa, Gaixotasuna, Gerra, Gosetea, Miseria, Erotasuna, Bizioa, Iruzurra, Pasioa, Harrotasuna; baina baita Itxaropena ere. Zeusek sortu zuen bake, gaztaro eta oparotasunean bizi ziren izaki hilkorrei kalte egiteko. Kutxa irekitzen denetik izaki hilkorrek gaitz horiek guztiek pairatuko dituzte; ez ordea itxaropena, barruan geratu baita.

Fosil lanean, gizakiak pairatzen dituen gaitzak ondokoak dira: kutsadura, mundu ilun, beltz, narriatu, huts bat... Olio beteta dagoena.

Informazio gehiago



[Greziar mitologia bideotan](#)
© TV5 Monde

Galdutako paradisuaren mitoak

"Heriotza eta galtze masiborako arriskuaren gainetik, itxaropenaren aldeko arriskua hartu dut nik. Azaldu izan zaigun Galdutako paradisia eta Eden oparoa berreskuratzea esan al du horrek? Edo birsortze berri bat al da? *Fosil* lanak, bere era berezian, galdera horiei erantzungo die." Martin Harriague

Urrezko Aroaren mitoa

Greziar eta erromatar mitologietan, Urrezko Aroa epe mitiko bat da eta, aipatuan, gizakiak bake, poz, gaztaro, edertasun eta amaierarik gabeko udaberri batean bizi ziren, krimenik eta atsekaberik gabe, jainkoen ondoan. Gizakia naturarekin harmonian bizi zen: begetarianoa zen, inork ez baitzuen ezer hiltzen, eta naturak uzta oparoak eskaintzen zizkion lurra lantzeko beharrik izan gabe.



Jaungoikoak sortu zituen lehen gizakiak dira. Paradisuarekin aldera daitekeen Edengo lorategi ederrean bizi ziren. Debekeatutako fruitua –ezagutzaren zuhaitzetik– jan eta gero, Jaungoikoak Edengo lorategitik kanporatu zituen. Eta horrek oparotasunaren, inozentziaren eta lurreko paradisuaren amaiera suposatu zuen.



Egungo hizkeran, "Galdutako paradisia" esamoldea antzinako denbora zoragarri bati lotuta dago, non gizakiak eta natura erabateko harmonian bizi baitziren. Denbora hori aspaldi galdu zen. Halaber, "Urrezko Aroa" esamoldea idealizatutako iragan bat aipatzeko erabiltzen da.

GALDEKETA

BIGARREN HEZKUNTZA ETA BATXILERGOA



Zein da koreografoak lan honetan jorratu duen arazoa?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Zure ustez, lan engaiatua al da *Fossil*?

☐ Bai ☐ Ez

Zure ustez, lan hau:

☐ Errealista ☐ Abstraktua

Nola interpretatzen duzu lanaren titulua, *Fossil*?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Ikurrik erabili al du koreografoak lan honetan?

☐ Bai ☐ Ez

Erantzuna baiezkoa izan bada; zure ustez, zer irudikatzen dute?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Eszenografia (argiak, dekoratua, giroa) eta gogora zer ekarri dizun deskriba ezazu

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Koreografoak umorea erabili al du lan honetan?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



© Olivier Houeix

Zure ustez, artelan bat gai al da mezu bat igorri eta kontzientziak suspertzeko? Erantzuna baiezkoa izan bada; zergatik eta nola?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Informazio gehiago



[Lanaren sarrera sakona koreografoaren aldetik](#)



TXANDA

ZURE TXANDA DA

Zure mundu perfektua irudika eta sor ezazu



Maila guztiak

Zuretzat nahiko al zenukeen mundu
perfektua imajina eta azal ezazu.

Teknika askea: testu, marrazki, olerki,
abesti, etab.

KONTAKTUAU

■ Malandain Ballet Biarritz

Laura Delprat, Coordination programme médiation et EAC
l.delprat@malandainballet.com
tel. + 33 (0)5 59 24 62 09

Ione Miren Aguirre, Artistique et pédagogique
i.aguirre@malandainballet.com
tel. + 33 (0) 6 08 53 16 69

Carine Aguirregomezcorta, Administratrice de projet : Programme Art et Environnement
c.aguirregomezcorta@malandainballet.com
tel. + 33 (0) 6 16 13 47 10
www.malandainballet.com

■ Fundación Cristina Enea

José María Hernández, Directeur général
Uxua Arana, Chargée de l'éducation
Iker Aranberri, Chargé de la communication
www.cristinaenea.eus

■ Equipe d'éducation environnementale de la mairie de Pampelune

Ana María Domínguez, coordinatrice de l'équipe d'éducation environnementale
Iosu Alfaro, éducateur environnemental
Gurutze Santxo, éducatrice environnementale
María Soto, éducatrice environnementale
Sara Nieto, éducatrice environnementale
www.pamplona.es

